# Zurriolako Ataria

100 .alea

2020-05-22

## *Ataria* digitalak 100 ale!



2017. urteko azaroaren 3an plazaratu genuen "Zurriolako Ataria" astekari digitalaren 0. alea. Orduz geroztik **beste 100 ale** argitaratu ditugu 0. ale horretan azaldu genituen helburuak bete nahiean:

- Barne komunikazioa indartzea.
- Informazio, gutun, ohar eta abarren jarioa arindu eta koherentziaz bideratzea.
- Ostiraleroko hitzordua egonkortzea.

Beste hainbeste ale plazaratuko ditugulakoan, bitartean, hementxe dituzue den-denak txukun-txukun bilduta.

## BHrako errefortzu proposamen berria



Gaur zortzi aipatu genuen bezala, azken bolada honetan albiste zurrunbiloaz gain, mezu kontrajarri asko jasotzen ari gara presentzialtasunaren inguruan. Besteak beste, aste honetan (atzo) Ikuskaritza aldetik guk aurreikusitako plangintza egokitu beharraz ohartarazi digute (balizko ikastetxeen autonomia eta segurtasun irizpideez ahaztuta nonbait). Hori dela eta, Ikastolako Arrisku Prebentzio Batzordeak zehaztutako baldintzetan eta zuzendaritza pedagogikoak proposatutako irizpideak jarraituz, honako ibilbide hau lantzea erabaki da:

- DBH4, Batxi1 eta Batxi2rako errefortzu plangintza berri bat egitea eta lehengo astean erabakitako ekainaren 15eko data hori aurreratzeko prozedura irekitzea.
- Proposatutako presentzialtasun egitasmo berri hau ikasleentzako borondatezkoa izango da.

## Elkarmaker proiektua



Ikasturte hasieran, LH3ko ikasleek marraztutako makinak DBH3koek landu eta diseinatu ondoren, azkenik, Mondragon Eskola Politeknikoko ikasleek makinen prototipoak gauzatu dituzte.
Ikasturte osoko lanak jaso du bere fruitua eta hegan joateko prest gaude! (Info+)
Gure ikasleek ondorengo proiektuetan hartu dute parte: 1, 2 eta 3.

## Ikastolako komunitatearentzat hizketaldiak (webinar)



Datorren astelehenetik aurrera gurasook (eta baita ikastolako gainontzeko langileok ere) hainbat gairen inguruan *webinar* edo web-mintegi bana izango duzue aukeran. Informazioa orokorra bertan duzue, gutun xeheagoa, berriz, hemen. Azkenik, bideo hizketaldi hauetan izena emateko aukera bertantxe duzue.

## Musika Eskolako zenbait ikasleren emanaldia



COVID-19aren ondorioz martxoaren 14ean ikasle-irakasle emanaldia bertan behera utzi behar izan genuen, irakasleekin elkarlanean bakoitzak bere etxetik jotzen prestaturiko bi bideo ikusi eta entzuteko aukera BIKAINA duzue bertan. Bejondeizuela guztioi!




## OHARRAK / AGENDA:

- **Eskolaz Kanpoko jarduerak 2020/21:** Informazioa eta izen ematea. Zirkularra.
- **DBH:** Zuzenketa. DBHko 3. ebaluazioko buletina ekainaren 2an jasoko duzue.
- **DBH4-BATXI:** Merkatu txikia. Saldu eta eros daitezkeen liburuak. Informazioa.
- **BATXI1:** Habe C1. Azterketa deialdia - matrikulatzeko argibideak eta egiaztatze-deialdiaren inguruko informazioa bertan.
- **BATXI2:** Antolaketa ohar garrantzitsuak (3. puntua eguneratua). Gutuna.
- **GKAI - Lanbide Heziketa:** Ate irekiak. Maiatzak 27. Info+







**ZURRIOLA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA:**

- Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako musika eta dantza eskola da.
- Beste 65 musika eskolekin batera, Euskal Herriko musika eskolen elkarteko kide da.
- Hainbat ikasgaitan adituak diren 15 profesionalek osatzen dute irakasle-taldea.
- Musika eta Dantza eskolan irakasten diren gaiak honako hauek dira: musika eta mugimendua, musikaren hizkuntza, euskal dantza, pianoa, zeharkako txirula, saxofoia, klarinetea, trikitixa, panderoa, eskusoinua, gitarra, biolina, perkusioa (bateria, darbuka, djenbea, txalapartea, ...), informatika musikala eta talde instrumentalak.
- 4 urtetatik hasi eta adin mugarik gabe.

itzuli

**ZURRIOLA IKASTOLA IKE**
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587